



**BERUMUGA 2018**

*Espolola* ordua : 22:00

***Uztailak 06, ostirala***

**Shirley Davis & The Silverbacks**

***Uztailak 13, ostirala***

**The Cherry Boppers**

***Uztailak 20, ostirala***

**Ash Grunbald Band**

***Uztailak 27, ostirala***

**Welma Powell & Bluedays**

**Uztailak 07, ostirala**

## **Shirley Davis & The Silverbacks**

*Soul banda*

Shirley Davis & The Silverback-en lehen disko luze "Black Rose" lanean Soul urardotu gabea eta afrobeat ukitu bat proposatzen ziren. Elkarlan hori bila gabe sukaldatzen hasi zen Tucxone Records zigiluko jendea bilduta zegoen Sharon Jonesen emanaldi batean Shirley Davis aurreikusi gabe abesten hasi zenean. Tucxonekoak han eta hemen hasi ziren arakatzen, Australian bizi zela jakin zuten, ibilbide oparoa izanagatik ere ez zuela merezi zuen ezagutza izan... eta Davisek onartuko zuen proposamen bat egin zioten.

Gurasoak jamaikarrak izanik, Shirley Davis ingelesak bide oparoa egin du orain arte, eta bide horretan besteak beste Wilson Picket bezalako artista handiak topatzen ditugu; izan ere, Shirley Davisek eta bere talde Gran Wazook aipatu artistaren euskarri taldearena egin zuten bira oso batean, AEBetako artistaren koruarena eginez.

Harreman estua izan zuen "Marva Withney" handiarekin, eta haren eskutik elkarlanean jardun zuen "Osaka Monourail" japoniar talde ikusgarriarekin, "No trouble on the Montain" izenburuko singlea plazaratu zuen, Richard "Groove" Holmesen bertsioa bera. Shirley Davisek kolaborazio lan asko egin ditu beste hainbeste diskografia zigilurentzat, horien artean aipagarrienak "Freestyle" zigiluarentzat ondutako "Greebacks" gaia, "Deep Street Soul" izenburuko albumean jasotako Deep Funk generoa argi eta garbi aldarrikatzen duena, eta "Deepface" lanean eskainitako kolaborazioa; azken horretan, artistak une batez bazter utzi zituen funkaren eta soularen hots erdiragarriak masen idolo bihurtzeko bere "I Wanna Live" gaiarekin, izan ere, lehenengo postua lortu zuen gai horrekin Australiako zerrendetan. "Sharon Jones" artista handiak babestuta, Europako soularen izan berria izango da Shirley haren arabera. Eta halaxe dio Shirleyk berak: "Oso pozik nago hemen, Europan, eta ahaleginak egingo ditut musika mota hau bazterreko mundutik behin betikoz irten dadin eta herri musika gisa merezi duen lekua berreskuratu dezan".

Talde guztiz sendoa lagun, benetan gozatuko dute musika beltza maite dutenek.

Zuzenean **"Wishes and Wants"**, udaberriaren kaleratutako bigarren diskoa aurkezten

-----

*Soul sin adulterar y un toque de afrobeat es lo que proponen Tucxone Records en el primer largo de Shirley Davis & The Silverbacks, "Black Rose". Una colaboración que empezó a cocinarse de forma casual, con Shirley Davis cantando espontáneamente en un concierto de Sharon Jones en el que estaba presente la gente de Tucxone. Estos empiezan a rastrear, descubren que vive en Australia, que a pesar de una trayectoria sólida no goza del reconocimiento merecido... y deciden hacer una propuesta que Davis acepta.*

*Mantuvo una estrecha relación de amistad con la gran “Marva Withney”, la cual la llevo a realizar una colaboración con la espectacular banda japonesa “Osaka Monourail”, editando así un single titulado “No trouble on the Montain”el cual es una versión de Richard “Groove” Holmes. Shirley Davis ha realizado numerosas colaboraciones para diversos sellos discográficos, los más destacados son la aparición estelar en el sello “Freestyle” con el tema “Greebacks” el cual es toda una declaración de intenciones del género Deep Funk que aparece en el álbum titulado “Deep Street Soul” y la colaboración en “Deepface”, proyecto en que la artista abandona por un momento los desgarradores sonidos del funk y del soul para convertirse en un ídolo de masas con su tema “I Wanna Live” con el cual consigue un número uno en las listas australianas. Cuenta con el beneplácito de la archiconocida artista “Sharon Jones” para la cual Shirley Davis está destinada a proclamarse como la nueva diva del soul en Europa. La misma Shirley dice: “Estoy muy contenta de estar aquí en Europa y poder contribuir a que esta música abandone de una vez por todas el plano underground y vuelva a ocupar el puesto que se merece como música popular”*

*Después de tres semanas intensas en los estudios de Tucxone Records, en 2018 estrenan el fruto de esta colaboración entre Shirley Davis y The Silverbacks en un segundo disco que lleva por título **“Wishes and Wants”**.*

*Shirley Davis tiene una dilatada carrera en la que podemos cruzarnos con nombres como Wilson Picket, para el cual Shirley Davis junto a su banda hicieron de soporte durante toda una gira en la que Shirley fue corista del artista de E.E.U.U.*





**Uztailak 13, ostirala**  
**THE CHERRY BOPPERS**  
*Groove*

**The Cherry Boppers** 2004. urtean sortu zen Bilbon (Bizkaia), afroamerikar erritmoak sustatzeko eta haiei zabalkundea emateko, eta iraganeko hamarkadetako erritmo beltz zoragarriak jazzaren sakontasunaz, soularen dotoretasunaz, funkaren dantza

izerditsuaz eta beste molde batzuez jotzen gozatzeko asmo garbiarekin.

Urte hauetan guztietan, diskografia zabala osatu dute eta kontzertu asko eskaini dituzte, emanaldi ugari Estatuan, Frantzian, Alemanian eta Holandan. "For dancers only" album berria (LP/CD), musika beltzaren mundu magiko bezain eragingarrian barrena egiten den bidaia da, errespetua eta miresmena ardatz hartuta; jatorrizko 12 gai biltzen ditu eta xede bakarra... Dantza!!!

Afroamerikako erroetatik datorren beste edozein estilok bezala, aspaldi du funkak egin zuela jauzi Atlantikoaren bazter honetara. Ildo honetan, The Cherry Boppers ezinbesteko erreferentzia dira Euskal Herrian ez ezik Espainiako estatu osoan, proposamen interesgarrienetakoa izanik gaur egun Europan egiten den funkaren panoraman. Bestalde, ez litzateke bidezkoa izango banda honen musika estilo bakarrera murriztea, batez ere hamalau urte iraun duen proiektuaz ari garela: zortzi lan diskografiko argitaratuak dira, zientoka kontzertu emanak gure kontinentean zehar.

*For Dancers only* taldearen azken lanaren tituluak adierazten digu zer edo zer taldearen ezaugarriez. Bateria Txefo K-billy, perkusioan Xixo Yantani, baxuan Guru Teje, gitarra Rambo *The street King*, tekladuetan Raimund Dietzen, saxoa eta txirula Mihail Goldfingers, eta tronboian Art LaRock. Artistok garatu duten estilo berezian groovea jabetzen da hasieratik, hirurogeiko urtealdian indarrean azaldu zen funka ere erakusten digute, batzuetan Motown doinuak gogoraraziz eta Marvin Gaye faltetsia batez ere; jazzaren eta soft soularen arteko ariketak ere badira euren erreperitorioan, dantzapista leporaino uztartuz.

Oroigarri eta oihartzunez hornitutako erreperitorioa, Curtis Mayfield, Marvin Gaye edo The Jb's, Grant Green, Lou Donaldson edo Lonnie Smith atzeman genitzake. Perfekzio handiz diseinaturiko groove egokiarekin eta Bilboko banda honek bere ibilbide luzean hartutako jakinduriarekin osatua. Jatorri afroamerikarreko soinu mordera egokitu digu hain berea duen kontzeptura, gure garaiari dagokion ikuspuntua galdu gabe.

-----

**The Cherry Boppers** nace en el año 2004 en Bilbao, Bizkaia, con una clara intención: difundir los ritmos afroamericanos y promover y disfrutar tocando los maravillosos ritmos negros de décadas pasadas, con la profundidad del jazz, la elegancia del soul, el sudoroso baile del funk...

Durante todos estos años, su discografía es extensa y han realizado casi numerosos conciertos abarcando decenas de shows en el Estado, así como en Francia, Alemania y Holanda.

Su nuevo álbum (LP / CD) "For dancers only" es un recorrido, desde el respeto y la admiración, por el mágico e influyente mundo de la black music, con 12 temas originales y una clara finalidad.... El baile!!!!!!

Como cualquier otro estilo que bebe de las raíces afroamericanas, el Funk saltó a este lado del océano hace algunas décadas ya, proliferando en un pequeño aunque fructífero circuito del que The Cherry Boppers son indiscutibles referentes no solo en Euskadi si no en el resto del estado, perfilándose desde hace años, como una de las más interesantes propuestas dentro del panorama funk europeo. Por otro lado, no sería justo circunscribir el estilo de la banda a una sola etiqueta, sobre todo cuando hablamos de un proyecto que ha perdurado catorce años a lo largo de los cuales, han editado ocho trabajos discográficos y han protagonizado cientos de conciertos a lo largo y ancho de Europa.

*For Dancers Only*, su último trabajo, lo dice todo sobre una formación compuesta por Txefo K-billy (batería), Xixo Yantani (percusión), Guru Teje (bajo), Rambo "The street King" (guitarra), Raimund Dietzen (teclados), Mihail Goldfingers (saxo, flauta) y Art LaRock (trombón) desarrollando un estilo propio a través de estas doce canciones originales donde el groove toma posesión desde el inicio con claras alusiones al funk de los primeros setenta, reminiscencias Motown y un claro tributo al añorado Marvin Gaye, incluyendo algún ejercicio a medio camino entre el jazz y el soft soul, estando siempre presente la pista de baile.

Temas plagados de reminiscencias que van desde Curtis Mayfield, Marvin Gaye o The Jb's, hasta Grant Green, Lou Donaldson o Lonnie Smith, construidas con el groove perfecto y la sabiduría de esta banda bilbaina que a lo largo de los años ha sabido aglutinar infinidad de sonidos de raíz afroamericana para crear un concepto propio sin perder la perspectiva actual.



**Uztailak 20, ostirala**  
**ASH GRUNWALD BAND**  
*Australia Rock & Blues*

**Artistarik txundigarrienetako bat Australiako  
oholtzak zapaltzen dituztenetakoen artean  
AUSTRALIAKO ROCKAREN INDARRA XXI. MENDEKO  
BLUESA BIHURTURIK**

Bederatzi disko hamabi urteren buruan, bada zer edo zer. Ash Grunwaldek zuzenaldi txalogarriak ematen ditu bere sorterrian, entzuleek zein adituek miretsia da, eta azken sei urte honetan Australiako eta Zeelanda Berriko aretoak bete ditu. Arrakasta eduki du Estatu Batuetan,

Kanadan eta Erresuma Batuan. Aldamenean izan ditu James Brown, The Black Keys, Jack Johnson, Bo Diddley, The Cat Empire, Missy Higgins eta Pete Murray. Australiako hedabideek benetako izartzat daukate: ahots zakar eta sakonez, hegazkinlari betaurrekoz eta sex-appeal dariola berak zirkinik egin behar izan gabe, samaldaka batzen ditu jarraitzaileak. Berezko sena dauka publikoarekin lotzeko. Ohikotik urrun, set list-ik ez, unean unekora egokitzen da, interpretatu beharrekoan behin eta berriz sakonduz, beti dakar berritasunen bat emanaldira. Egia esan, nortasun berezia ageri du nabarmentzea zaila izaten den genero batean. Surfa eta bere sorterriko natura maite ditu, eta itsasoaren defendatzaile sutsua dugu Ash Grunwald. Baikortasuna dario bere musikari, eta mezu politikoz betea den arren, ez dauzka albora uztekoak erritmo biziak eta groovea. Rock blues sikodelikoaren maisu, modaren eta aparraldien amuari barre eginez, Ash Grunwalden talentua bezala joan dira handituz bere lorpenak ere, eta esan liteke musikari betiberri eta elektrotzar honek zakuan dauzkala onenak gordeak oraindik, ateratzeke.

*Now* honek badu leku berezia Grunwalden ibilbidean. Nolabait esateko, modernoago ageri da, esperentalismoan abiatzen da beldur barik “rock eta blues album bat egiteko XXI. mendeko sikodelian, sci-fi eta rock zingiratsuan, halakorik inon baldin bada”.

Power hirukote batekin datorkigu aurkezpenetan, Hendrix eta Cream bezalako artista ereintzaileak dakarzkigula akordura.

-----

## **uno de los artistas más fascinantes de la escena australiana. La potencia del Rock Australiano convertida en Blues del Siglo XXI.**

*Con una prolífica carrera que abarca 9 discos en 12 años, Ash Grunwald tiene uno de los directos más respetados de su país. Aclamado por prensa y público, lleva agotando entradas en Australia y Nueva Zelanda durante los últimos 6 años. También ha girado con éxito por USA, Canadá y Reino Unido. Ha actuado junto a James Brown, The Black Keys, Jack Johnson, Bo Diddley, The Cat Empire, Missy Higgins y Pete Murray. La prensa de su país habla de una auténtica estrella del rock sobre el escenario, de voz rústica y profunda, ataviado con sus gafas de aviador y derrochando sex-appeal casi sin querer, atrayendo a audiencias masivas. Tiene una habilidad innata para conectar con el público. Quizás su frescura viene de la falta de una rutina de ensayos o de la ausencia un set list fijo durante años. Ha sido definido como un genio de la improvisación, experimentando en la interpretación de sus temas, sacándose trucos bajo la manga concierto tras concierto. De lo que no hay duda es de que ha creado una identidad propia en un género en el que puede ser difícil diferenciarse. Amante del surf, de la extraordinaria naturaleza de su país y ardiente defensor de la vida en los océanos, Ash Grunwald proyecta optimismo en su música, cargada también de mensajes políticos, sin perder de vista los ritmos vibrantes y el groove.*

*El talento y los logros de Ash Grunwald han ido siempre a más, y parece que lo mejor está por llegar en este músico fresco y super eléctrico, maestro del rock blues psicodélico, que sigue su propio camino ajeno a modas o tendencias.*

*“Now” es un trabajo muy significativo en la carrera de Ash Grunwald. Profundiza en un acercamiento más experimental y moderno con la intención de “crear un álbum de rock y blues, psicodelia del siglo XXI, sci-fi y rock pantanoso, si es que puede haber algo así”.*

*En directo se presenta con un power trío que recuerda a artistas seminales como Hendrix y Cream.*





**Uztailak 27, ostirala**  
**WELMA POWELL & BLUEDAYS**  
*Blues banda*

Bigarren LPa du Velma Powellek hauxe, aurten kaleratua. Eta aurrekoa bezala, Bluedays taldearekin sinatua da. Ez da harritzekoa ere, ez dago Velmaren kantaera hobeki ulertuko duen *backing band*-ik inon.

*Blues to the bone* premia batek sortua da, Estatu Batuetako artista honek bere erroetan eta musika ondarean fermuki atxiki nahi duenez. Chicagoko blues elektrikoa da nagusi lan honetan, hasi eta buka. Bertakoa izanik, bertako hizkera da Powellek ongien menderatzen duena. *Step Into The Blues* (BRC, 2015) diskoan doinuak blues jatorrean ez ezik beste genero *beltzaran* batzuetan barrena ere bazebilen, soul eta jazzy, baina oraingoan ez dago zalantzarik estiloaren batasunaz eta soinuaren gardentasun ozenaz: Chicagoko bluesa, jaun-andreok! Eta benetakoa, ez Powell *haizearen hirian* sortua delako, arrakalarik gabekoa delako baizik, bihotzera zuzen datorrena... Abesti batetik bestera eginez, odolez ere ahaide badituen artista handien aztarnak nabarituko ditugu: Brownie McGee, John Lee Hooker, Muddy Waters, Little Walter (honen "Too Late" interpretatuz), Howlin' Wolf edo Otis Rush.

Abesti hunkigarriak eta adiera bat baino gehiagoko letrak eskaintzen dizkigu Powellek, hala behar genero honek. Indarra, karisma gainezka, background musikala eta itzelezko agerraldia oholtza gainean Velma Powell & Bluedays beren diskoa aurkezten.

-----  
*"Blues To The Bone" es el título del segundo LP de Velma Powell publicado este año, que de nuevo firma al alimón con el grupo BLUEDAYS. Ninguna backing band entiende la forma de cantar de Velma mejor que ellos.*

*"Blues To The Bone" nace desde la necesidad que la artista norteamericana siente de reafirmarse en sus raíces y su acervo musical; el Blues eléctrico de Chicago inunda este trabajo desde la primera a la última canción. Es su ciudad, es su música y el lenguaje que mejor sabe manejar.*

*Si en "Step Into The Blues" (BCR 2015) su música transitaba con toda naturalidad desde el Blues más genuino hacia otros géneros igual de negroides y conocidos en ella como el Soul, o incluso acercamientos más jazzys, aquí no hay duda de la coherencia estilística y de la claridad rítmica y sonora: esto es Blues de Chicago, señoras y señores. Del auténtico (Velma es nacida y criada en la ciudad del viento), sin fisuras, directamente al corazón y donde, caminando de una canción a otra, se puede respirar la influencia de grandes con los que incluso está consanguíneamente emparentada: Brownie McGee, John Lee Hooker....pero también aparecen entre sus notas los legados de Muddy Waters, Little Walter (del que interpreta su "Too Late"), Howlin' Wolf u Otis Rush.*

*En directo, Velma nos regala letras llenas de sensibilidad y los dobles sentidos característicos del género. Fuerza, carisma a raudales, herencia musical y una arrolladora puesta en escena. Eso son Velma Powell & Bluedays presentando su nuevo disco .*

BERGARA

# BERUMUGA

UZTAILA 2018 OSTIRALAK · ESPOLOIA 22:00

**SHIRLEY DAVIS**  
& THE SILVERBACKS

6



**THE CHERRY**  
**BOPPERS**

13



**ASH GRUNWALD**  
BAND

20



**VELMA POWELL**  
& BLUEDAYS

27

